

Donostia, 2021eko otsailaren 5a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

INTXAURRONDOKO OSASUN ZENTROAN MURRIZTUTAKO LANGILEEI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia Udal Taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, UDALBATZAN AZTER DADIN, Intxaurrondoko Osasun Zentroan egiten ari diren murrizketak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

COVID-19ari lotutako krisi-egoerak erakutsi digu zer arrisku eta ondorio eragiten dituen osasunean eta osasun publikoan baliabideak eskas erabiltzeak edo murrizteak. Osasun-sistema publikoan lehendik ere izaten ari ziren murrizketen ondorioz, sistema tenkatu egin da, eta egoera hori bere profesionalen ahalegin izugarriari esker bakarrik jasan ahal izan da. Profesional horiek, bestalde, hobekuntzak eskatzen zituzten, lehendik ere, beren lan-baldintzetan.

Ildo horretatik, gogorarazi nahi dugu lehen mailako arretak osasun-sistemari eusteko lehen dike moduan duen garrantzia. Duela ia urtebetetik bizi dugun egoera ezagututa, eta pandemiaren azken asteetako bilakaera ikusita, jokaera arriskutsu eta arduragabea iruditzen zaigu administrazio publikoak arlo horretan murrizketak egiten jarraitzea.

Osasun-langileek lan-gainkarga jasaten dute pandemiaren osasun-kudeaketaren ondorioz. Ohiz kanpoko egoera berezi horri –orain, gainera, aurrekaririk gabeko txertaketa-kanpaina bat kudeatu behar da– bestelako gaixotasunek behar duten arreta gehitu behar zaio; izan ere, gaixotasun horiek ez dira desagertu. Hala, ez dirudi logikoa, gaur egun gero eta ugariagoak diren herritarren osasun-beharrei erantzuteko, pandemia baino lehen zeuden giza-baliabideak murriztea.

Hala ere, horixe gertatzen ari da Intxaurrondoko anbulatorioan, azken hilabeteotan bi pediatria izatetik bat izatera igaro baita. Gure ustez, batez ere momentu hauetan, osasun-langileak inoiz baino beharrezkoagoak dira, eta, beraz, lehen mailako arreta indartu beharko litzateke.

Gogora ekarri nahi dugu pediatria-zerbitzuek gainkarga handia zutela pandemia-egoeraren aurretik, pediatria bakoitzeko paziente-ratioa oso altua izanik, eta murrizketa berri horrek egoera larriagotu besterik ez duela egiten.

Intxaurrondoko anbulatorioko pediatria-zerbitzuarekin gertatutakoaz gain, ohartarazi digute anbulatorio bereko beste zerbitzu batzuetan ere langileak murriztuko dituztela. Gure ustez, funtsezkoa da udal gobernua honetan inplikatzeari, haren bitartekaritza ezinbestekoa delako egoera hori eta hiriari erasaten dioten beste batzuk, hala nola Parte Zaharreko anbulatorio berria jasaten ari den atzerapena, organo eskudunari helarazteko, kasu egin eta konpon ditzan.

Auzoetako beharrak eta lehen mailako arreta-zentro berriak atzeratu egin dira. Osasunak, oro har, eta, zehazki, pandemiaren intzidentziak klase-kondizioarekin duten harreman zuzena gogoratu behar dugu. Faktore sozial eta ekonomikoen eraginez, gizarte-egoera ahulean dauden pertsonak, gaur egungo pandemian, gaixotasunaren pronostiko okerragoa dute, oinarritzko osasun-egoera okerragoa dutelako. Hori dela eta, osasun-arreta handiagoa behar dute. Hala, bada, gaur egungo murrizketekin amaitzeaz gain, baliabide tekniko eta giza-baliabide gehiago jarri behar dira, auzorik ahulenetako errealitate sozioekonomikoa kontuan hartuta.

Hori dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta, zehatzago esan, Osasun Sailari eta Osakidetzari, gutxienez, duela urtebete Intxaurrondoko anbulatorioan zegoen langile-kopuruari eusteko, bi pediatria daudela bermatuta.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta, zehatzago esan, Osasun Sailari eta Osakidetzari txosten bat egin dezatela Donostiako lehen mailako arretazentroetako langileriaren bilakaerari buruz, eta, azken urtean murrizketarik izan bada, lehen mailako arreta indartzeko behar diren langileak har ditzatela.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia